

## ***Mugimendu feminista indarkeria matxisten aurka, mugimendu instituzionalaren aurrean***

**Sarrera, historia eta genealogia feministarekin derrigorrez zerikusia duena.**

Orain dela ia 42 urte, Leioako unibertsitate-campusen gauzatu ziren Euskadiko lehenengo emakumeen topaketak.<sup>1</sup> Ez dago indarkeria matxistari buruzko atal espezifikorik, bai ordea, sexualitatearen gaineko kapituluan, bortxaketari buruzko txosten bat. Testuaren esanahiari buruzko azalpen batekin hasten da eta aipatzen du ez dela erresultatuak dituen behin betiko testua, eztabaidari ekiteko saio bat baizik. Zenbait paragrafo nabarmentzen ditut, esanguratsuak iruditzen baitzaizkit:

“ERRATEN DUTE bortxatzen ahal zaituztela baldin eta karrikan barna gauzez ibiltzen bazara, ez bestela.

GUK ERRATEN DUGU ezkontzako betebeharra dagoela eta, horren arabera, emazteek haien senarren sexu-grinari beti gustu eman behar diotela. Garbi dago gizonezkoek emazteen gorputzarekin kopulatzeke eskubidea dutela, gizonezko batek emakume baten gainean duen jabetzak, ez besterik, mugatzen duena, “jaberik gabeko emaztea denon jabetza baita”. Bestelako egoerak: idazkaria eta nagusia, erizaina eta medikua (fotonobelak), langilea eta karguduna, zerbitzaria eta jauntxoa, harrapakina eta funtzionarioa.

Orobat DIOTE salatzeko auzitegi burgesak erabiltzea justizia burgesa berrindartzea dela, espetxeratzeak ez baitu ezer konpontzen, bortxatzaileen erruztatzea eskakizun erreakzionarioa delako.

GUK DIOGU bi gauza ezberdin direla. Alde batetik, uste dugu bortxaketa emakumearen aurkako atentatu basatia dela eta horrela hartu behar dela. Bestetik, ez dugu espetxeko sisteman sinesten, ondorioen kontra baizik ez baitu kontra egiten, eta ez, ordea, kausen kontra.

Auzitegiak erabiltzeari dagokionez, kontua ez da justizia burgesa eta matxista indartzea, hari mozorroa kentzea baizik. Bortxaketarengatiko prozesu batek askoz argiago frogatzen du, hamaika diskurtsok baino gehiago, legea existitzen dela bortxatzaileak babesteko eta ez emakumeak. Orobat, emakumeendako elkartasunari deitzeko balio du.”

Egia esanda, ekarpena ez da zabala, baina paragrafo horiek ederki jasotzen dituzte oraindik indarrean dauden eta etengabe birkokatzen ari diren eztabaida garrantzitsuenetako bi. Horietako bat ezkontzako indarkeria da.<sup>2</sup>

80etako hamarkada oso emankorra izan zen borroka feministetan eta, orobat, erasoen kontrako pelean. Zenbait erakunde, mugimendu eta halako ezker

---

<sup>1</sup> Historia eta lengoaiarako, aipatu behar dugu orduan Euskadi E. espainiarreko lau probintzietarako -Hego Euskadi- eta E. frantziarreko hiruetarako (Iparralde) erraten zela egun Euskal Herria deitzen dugunerako. Eta goiburuan, hizkuntzen arabera, Emakumearen edo emakumeen topaketak agertzen direla.

<sup>2</sup> **Bereziki gazteei eskainitako oharra:** 1977an, Diktadurak 1938tik ezarritakoa, erritu katolikoz egindako ezkontza bikoteen %99k erabiltzen zuen. Elizaren legeek agintzen zituzten ezkontza horiek eta haren araudiak ezkontzako eginbidea ezartzen zien emakumeei eginbehar gisa. Ezkontzako gatazkak eta banantze prozesuak Elizako epaitegietan ebazten ziren, bertan apezak egonik, eta beti loturaren defendatzailea deituriko abade bat aritzen zen, zeinaren eginkizuna baitzen senar-emazteak animatzea, ezkontzak batasun, maitasun eta armonia gutxirekin segitzera.

erreformistak trantsizio demokratikoa finkatua zegoela eta Diktadura atzean gelditua zela uste zuten bitartean, guk, Euskal Herriko feminista autonomo eta erradikalok, gure eskakizunak lortu nahian jarraitzen genuen. Nekaezin baina, aldi berean, kontentagaitz: karriketari galdatzen zenaren ia ezer ez zen islatu proiektu frankista-konstituzional makal eta segitzailean. Mugimendu feminista erradikalenak Konstituzioaren kontrako botoa eskatua zuen, horrela borrokak jarraitzen zuela adierazita. Eta zeharkatzen duen ardatzetako bat indarkeria matxista da.

Topaketan eztabaidatu ziren testu idatzietara joko dugu berriro. Orain, Euskadiko Emakumeen Bigarren Topaketek Leioara joateko dei egin ziguten, Euskadiko Emakumeen Asanbladak eta Aizan-ek sinatuta.

“Emakumea eta indarkeria” kapitulua atal garrantzizkoa da eta berrogeita hamar orrialde betetzen dituzten bost txosten ditu. Orrialde horietan emakumeen aurkako indarkeriari buruzko elementu eta hura aztertzekeo paradigma berriak agertzen hasi dira: gure gizartearen militarizazio gero eta handiagoa, gerra eta horrek nola eragiten duen emakumeengan (1986an Euskal Herriak OTANen sartzearen kontra bozkatu zuen. Mugimendu feministak aktiboki hartu zuen parte militarismo eta gerraren aurkako oso kanpaina bizietan. Haren indarrak, nazioartean, bat egiten zuen Greenhamm Common-eko lagunekin, beltzeko emakumeekin...) Orduan hasi ziren agertzen indarkeriaren kontrako taldeak, antimilitaristak eta bakezaleak eta gai horien inguruan eztabaidatzeko topaketak egin ziren. Bikote-harremanen eremuko indarkeria ere nabarmentzen da eskakizun espezifikoekin, horietako asko lege penal eta zibilen esparruan. Bortxaketak eta sexu-erasoak legezko arautzetik ere kritikatzeko, aipatu behar da prostituta bat ez zitekeela inoiz bortxaketaren biktima izan, delitu hori zintzotasunaren kontrako delituen kapituluan sartzen baitzen eta delako “bertute” hori ez zitzaien emakume horiei suposatzen. Eremu horretan gatazka garrantzizkoa sumatzen hasi zen orduan, mugimendu feminista eta gauzatzen ari ziren erreforma-legeen artean. Indarkeria instituzionalaren kontzeptua adierazten hasi zen.

Hamarkadaren erdialdean, toki askotan zabaldu ziren erasoek aurkako batzordeak, zeinak sekulako lana egiten hasi baitziren, kasuak ikustarazteaz gain, salaketa publikoa ere egiteko, erasotzaileen egoera judiziala alde batera utzita. Pintaketak egin eta bortxatzaileen argazkiak jartzen dira, haien lantoki, bizitoki eta negozioetan zabaltzen da salaketa, jende orok ezagut dezan. Epaiketara joaten da, erasoriko emakumeen sostenguan. Taldeetatik bertatik, aholkularitza lana egiten hasten da. Eta, feministendako ia derrigorrezko eskola gisa autodefentsa

feminista agertzen da. Horrek jauzi kualitatiboa ekartzen du talde eta kolektibo eratze eta hazkunderari dagokienez.

AMV-BEAREN txostenetik hauxe bildu dut:

“Guk gure zapalkuntza mantentzen duen indarkeria kondenatzen dugu. Menderatze egoera oro mantentzeko erabiltzen den indarkeria: sexu batek bertze baten gainean egiten duena, klase batek bertze baten gainean egiten duena, herri batek bertze baten gainean erabiltzen duena. Indarkeria hori ezabatu nahi dugu eta, horretarako, haren kausak deuseztatu nahi ditugu, hots, sistema patriarkala eta kapitalista.”

Jardun eta eztabaida horien berri emakumeen kontrako erasoei buruzko topaketa monografikoek eman digute, Iruñean, 1987an, “Tolerantziarik ez, etsipenik ez. Eraso bakoitzari aurre egin” lelopean Iruñean egin zirenek.

III. Jardunaldi Feministek berriro Leioara eraman gintuzten 1994ko abenduan. Orduko leloa, “Mugarik, ez emakumeontzat” eta deialdiko sinadura Euskadiko Antolakunde Feministen Koordinadorarena. Tailer eta eztabaida taldeetan ondoko gaiei heldu genien: emakumeak espetxeetan, tortura komisaria eta kuarteletan, indarkeria eta bakea feminismoaren ikuspegitik, eta indarkeria sexistaren aurkako borrokaren inguruko tailer generiko bat, “Salaketarako hautabide bateratu baten bila” izenburu esanguratsua zuena. Afera zen mugimendu antolatuak praktikara eramatea “ ezta eraso bat ere erantzunik gabe, ezta bortxaketa bat salaketarik gabe” ahapetik kantatutako goiburu esanguratsua.

Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak 2008ko apirilean egin ziren, Portugaleten, “Feministok eraldaketarako borrokan” goiburua zutela. Eztabaidarako hiru ardatz nagusitan antolaturik, horietako bat Indarkeria matxistari buruzkoa izan zen eta bertara zenbait taldek sei txosten aurkeztu zituzten. Ordurako Madrilen genero indarkeriaren kontrako Lege Integrala onetsirik zegoen eta sare instituzional oso bat eratua zen, genero eta parekotasun politketan parte hartzen zuena, besteak beste, indarkeria matxistei aurre egiteko. Feminismo instituzionalak jabetza hartua zuen.

Feministek indarkeria matxistak aztertu eta indarkeria patriarkala sistema barruko egiturazkotzat hartu zuten.

### **Zer izen paratuko diogu? Izena duenak izana du**

Mugimendu feministaren lehendabiziko zereginetako bat emakumearen aurkako indarkeria izendatzea izan zen. Bistan da, indarkeria hori modu errealean izendatzea bere kontzeptualizazioari lotuta dago: zer den indarkeria matxista, zer ez den, zer arlo eta alderdi hartzen dituen barruan, nola gurutzatzen den beste indarkeriekin edo beste ikuspuntuekin, zer ekintza eta egitate hartzen dituen, nola sortzen den eta nola ugaltzen den... Eta hori lan konplikatu eta konplexua da.

Alabaina, ez dugu konplexutasuna saihezi behar hobeki ulertzeko. Gainera, indarkeria mota berriak, emakumeen aurkako indarkeriaren gertakari berriak agertzen dira. Aldi berean, kolpeen bitartez isilarazitako indarkeriak ere berragertzen dira: indarkeria poliziala, tortura, gerra ondoko indarkeria. Eta areago, zenbait elementu gurutzatzen baditugu (hemen bizi den emakumea, paperak izateko eskubiderik ematen ez duen lurralde batetik etorria edo/eta etnia edo arraza minorizatu batekoa dena, beste kultura batekoa) indarkeriak espezifikoak izanen dira eta, hortaz, haien kontra borrokatzeko tresnek ere espezifikoak behar dute izan. Nola salatu dezakezu jo zaituen norbait aldi berean kanporatua izan bazaitezke? Emakume bat nola sendatu daiteke indarkeriatik ez badu gizarte-osasunerako laguntzarako paperik? Zer epailek sinetsiko du begitarte beltz horrekin, osasun publikoaren kontrako delituak, ebasketak eta lapurreta txikiak edo handiak egiteagatik espetxeraturik dauden pertsona gehienekin partekatzen duen begitarte horrekin? Horrek guztiak islatu behar du gure hiztegian eta gure borrokan.

Erran behar da horretan, beste gauza askotan bezala, ez gaudela bakarrik, munduko alderdi askotan teorizazio oso bat eta kontzeptualizazio bat daudelako. Orduan, frankotan, itzulpenez eta beste esperientzia batzuez baliatzen gara. Batzuetan emaitza ederrekin eta, besteetan zalantzazko arrakastekin. Genero kontzeptua da lengoia itzuliaren mailegu horietako bat, argi-itzalak dituen.

Mugimenduko askok hitz ildo zabalaren hautua egin zuten, kontzeptuetan oso kontzentratua baino. Emakumeen kontrako indarkeria erran daiteke, indarkeria matxista, indarkeria maskulinoa edo menderatze maskulinoaren indarkeria, genero-indarkeria, indarkeria patriarkala... eta adierazten da zer erran nahi den eta zer alderdi sartzen dituen. Alta, ez da indarkeriaren abizena bakarrik, izena bera baizik. Zer erran nahi da indarkeriarekin? Eta, lehendabiziko momentutik, nabaritu zen ez dela, ezta gutxiagorik ere, indarkeria fisikoa bakarrik. Indarkeria psikologikoa ere bada, ahozkoa, mehatxuak, eta, orobat, imajinariokoa edo ideologikoa, hots, indarkeria diskurtsiboa. Batzuetan, indarkeria elearen hedadurak beste errealitate batzuk ia edukirik gabe uztera eramaten gaitu, guztia indarkerian laburbiltzen baita, zenbaitetan indarkeria zapalketarekin edo esplotazioarekin edo bereizkeriarekin nahasiz. Beste batzuetan, bokazio unibertsala duen beste paradigma batekin gurutzatzen da: parekotasuna. Eta, orduan, mundua bi ardatzetan bakarrik mugitzen da: ez indarkeria gehiagorik, bai parekotasun gehiago, kontrajarritako korrelatuak bailiran. Horrela, analisisien aberastasuna eta menderatze-ardatzen konplexutasuna galbideratzen dira, bertan gure bizitzak arriskatzen baititugu. Aldi berean, unibertsaltzat izendatzen diren kontzeptuak erabiltzeak aterabide eta ibilbide unibertsalak nahi izatera eramaten gaitu. Horrela,

gure unibertsialetatik pasatzen ez diren beste errealitate batzuk eta beste borroka batzuk ukatu edo bazter uzten dira.

Aipatutako feminismo instituzionalak<sup>3</sup> azpikeria okerrenetako bat sartu zigun mugimendu feministari lengoaiaren –eta zerbait gehiagoren- gaietan Genero-indarkeriaren kontrako babes integralerako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa onetsi zuenean. PSOEn eskutik izan zen eta eskuinarekin gauzaturiko eztabaida faltsuenetako bati eman zion bidea, eskuinak garunak urtu zituenean genero ideologia deitzen duenarengatik. Genero indarkeria terminoa, noski, erabiltzen ahal da, lerro feministetan ezta instituzionaletan<sup>4</sup> ere onartuena ez bada ere inondik ere. Baina hori erranda, ez daitezke inposatu, legezko bidetik, indarkeria matxista gehienak bazter uzten dituen kontzeptuaren definizioa eta zedarritzea.

Gizonek eragindako emakumeen erailketak salatzea aldarri popularra denean, emakume horiek bere eraileekin bikote harremanik ez dutenean, Alcasser-ko hiru neskatoen erailketarekin gertatu bezala, kasurik izugarrienetako bat aipatzearen, lege horri ez zaio beste gauzarik bururatzen genero indarkeria honela definitzea baino: bereizkeriaren, ezberdintasunaren egoeraren eta gizonezkoek emakumeen gaineko botere harremanen adierazpen gisa, **haien ezkontide diren edo izan diren edo haiekin afektibitate harremanengatik edo antzekoengatik, bizikidetzarik egon ez bada ere, loturik egon diren edo daudenek gauzatu dutena.** Hau da, indarkeria matxistaren aurkako neurri integralendako izugarritzat aurkeztu zuten lege organikoak indarkeria familiar edo etxekoa, gaurko edo iraganeko bikotearen harremanetako eremuan, ezagutu ohi duguna hartzen du, ez besterik.

Hitzak ahotik kentzen dizkigutenean, gure ezagutzak eta definizioak desjabetu eta harrapatzen dizkigutenean, zer egin behar dugu? Itxurazko eztabaida irrigarrian sartzea, lege batean genero indarkeria ongi deituta ote dagoen edo hobeki legokeen indarkeria matxista edo sexista edo beste modu batez izendatzea erabakitzeko?

Baina ez da hitz edo kontzeptuen afera bakarrik. Horretaz gain, urteak iraganik, ikusi behar izan genuen nola erailketa matxista eta sexu erasoen kasurik larrienetako bat, Iruñean, 2008ko sanferminetan (Nagore Lafarge) gertatutakoa,

---

<sup>3</sup> **Adiskide politiko eta borrokalari instituzionalei bereziki eskainitako oharra.** Ez da oso kontzeptu landua eta ez ditu konnotazio erabat negatiboak, baina erran dezagun erakundeek eta administrazioek feminismoaren eta emakumeen eskubideen arloan egiten dutenari dagokiola. Eta ez bakarrik instituzioak, baizik eta modu instituzionalean haiekin elkarlanean aritzen direnak, adibidez, sindikatuak, GKEak... Eta politika horiek ezinbestez betebeharreko arauak izaten bukatzen dute.

<sup>4</sup> **Nire adiskide legegileei eskainitako oharra.** Gogoratu behar da, errate baterako, Nafarroako lehendabiziko foru legeak, 2002an onetsiak, "Indarkeria sexistaren kontrako neurri integralak hartzeari buruzko Legea" izena zuela.

ezin izan zen judizialki genero indarkeriatzat kalifikatu. Ezta Maureen Ada Otuya eta Jenny Sofía Rebollo sexu langileen erailketak ere (2013an, Bilbon, "saholi faltsu" izendaturiko batek gauzatua). Ez dira genero indarkeria erailearekin bikote edo bikote ohiarekiko harremanik izan ez zelako. Horrek erran nahi du hitzen eta, batez ere, garrantzi legala duten eleen atzean hitz instituzionalak eragina duela. Horrela murrizten dira indarkeria matxistagatik hildako emakumeen erailketa kopuruak eta horrela murrizten dira, beste batzuen artean, biktimendako konpentsazio-neurriak. Indarkeria matxistak ez du zerikusirik bikote loturarekin, nahiz eta harreman horietan eraso asko gertatzen diren.

Hitz eta kontzeptuen beste kapitulua ez da txikiagoa. Ikusi behar da zer ekintza mota, egitate, adierazpen... benetan diren indarkeria matxista. Gai honi hurbiltzeko egin ditugun tailerretan ikusi genituen kontzeptua zehazten lagundu ziguten gauza batzuk. Ez definizioa itxiztat emateko interesarekin. Bai, ordea, azaldu, ikusi, aztertu, hitzez adierazi ondoren, zedarrizteko eta deskribatzeko. Tentsioa datza nagusitasun eta menderatze maskulinoa islatu eta irudikatzen duten indarkeria ekintza horiek zertan diren ongi definitzean, eta ez definizio zabal gehiegizkoari jarraitzean, ezer erraten ez duena, dena indarkeria dela baino.

Bikote, heterosexual, monogamoaren eremuan, familia nuklearraren motan, gertatzen diren eraso eta indarkeriak hurbildik aztertuz, zehaztasun argiz ezagutu da gizonek indarkeria-continuum bat mantentzeko erabiltzen dituzten mekanismo-sare osoa. Emakumeen gorputzaren gaineko kontrol hautemanezinarekin hasten da, mugigarritasun eta jendetasuna mugatzen segitzen du eta indarkeria basatienetara iristen da, zigorgabetasun osoz eta emakumeengandik erantzuteko inolako ahalmenik gabe. Beldurrak, maitasun erromantikoak, umeek, erruduntasunak, lotsak, sostengu ezak, bakardadeak, bikote harremana eta umeen ongia mantentzera desbideratutako aholkuek, maitasun eta sakrifizio ekintza batez hori guztia gertatzeko beharrak.... horiek guztiek zailtzen dute emakume askok harreman hori hausteko erabakia hartzea. Horren aurrean, berriro errudun bihurtzeko mezu instituzionala: "Tratu txarreko egoera hori deuseztatzeko telefono zenbaki bat markatu behar duzu, ez besterik"

Bada beste elementu bat, azken boladan gure kritika zorrotzetan gutxiago agertzen dena: familia patriarkala edo nuklearra. Are larriagoa. Gizarte zerbitzuen eremuko politika publiko liberalak eta neoliberalak esplizituki familiarrak dira, familiaren aldekoak dira. Eta hori gertatzen da menderatze kapitalista eta patriarkalaren eta, bertan, agindu konstituzionalari jarraikiz, familiak betetzen duen zereginaren artean dagoen bateratzearengatik.<sup>5</sup>

---

<sup>5</sup> **Konstituzioa 39.artikulua.** 1. Botere publikoek familiaren babespen sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dute. 2. Botere publikoek, era berean, seme-alaben babespen osoa ziurtatzen dute, hauek legearen aurrean berdinak izanik jatorria alde batera utzita, eta

## **Mugimendu feministak indarkeriarik gabeko emakumeen bizitzak dituxede.**

Indarkeria matxistaren existentzia etengabe ukatu izan ez balitz, haren erabilera modu orokorrean normalizatu izan ez balitz harremanen eremu pribatuenetan, izaten diren indarkeriaren beste kapitulu baten aurrean egonen ginatekeen eta aho batez kondenaturik egonen zitekeen. Baina emakumeen aurkako indarkeriak, kasu askotan, oso bide zoliak zeharkatzen ditu, batzuetan ikusezinak suertatzen direnak, normaltasunaren bideak direlako. Eta indarkeriaz hura delitu denean bakarrik hitz egin nahi delako. Eta, orduan, polizia eta auzitegien kapitulu bihurrietara pasatzen da. Ez da indarkeria ikusezina soilik, indarkeria zigorgabea da eta, hortaz, emakumeen bizitzetako ondorio negatiboak biderkatzen dira.

Indarkeria sexistaren adibide eta kasuak iragarki, lausengu, menderatzeko bikote harreman, askatasunez nahi ez diren harreman sexual, mehatxu zoli eta estali, diskurtsoko indarkeria, indarkeria ideologikora zabaldu behar izan ditugu indarkeria eragiten den egoera horrela hauteman ahal izateko. Eta ekintza horiek indarkeriaren continuumaren hasieratzat hartzen ditugunean, ez gara esaten ari berez auzitegi edo Zigor kodeko kasuak direnik. Arrisku egoera batez ohartarazteko balio duten kasuak dira, egoera zehatz batean gizon batek emakume bat gutxiagotzen duenean, non, zigorgabetasun osoz eta inolako defentsarik gabe erasotzen ahal duen. Erran dezagun ekintza horiek indarkeria zigorgabeak, inolako arazorik gabe, zeharkatuko duen ohantzea direla. Hortaz, bada, indarkeriaren continuum horren ibilbide osoa desegin behar dugu. Eta hori testuinguruaren kontakizuna da.

Baina, aldi berean, kontziente izan behar dugu indarkeria guztiak ez direla gertatzen testuinguru berdinetan, eta ez dituztela kontakizun eta ibilbide berdinak. Azken zioa menderatze patriarkala izanen da baina zio hurbilenak argitara ekarri behar dira. Ezezagun batek eragindakoa eraso sexual bat izan daiteke, besta batzuetan, lagun batek, bikotekideak, bikotekide ohiak eragindakoa, talde-manada batek besta batean eragindakoa, irakasle batek, apez batek, senide batek, ugazabak eragindakoa...Eta horiek ez dira gerra denborako eta aterpeko bortxaketen berdinak, polizia etxeetako edo atxilotze gunetako eraso eta torturen berdinak, migrazio-ibilbideetako eraso berdinak, prostituzio lanetan bahiturik eta

---

hauen amena berauen egoera zibila edonolako izanik. Legeak ahalbidetuko du aitatasunaren ikerketa 3. Gurasoek era guztietako laguntza eskaini behar diete seme-alabei, nahiz ezkontzakoak nahiz ezkontzatik kanpokoak izan, haien adingabezaroan eta beste kasuetan legalki eratortzen denean.”

salerosketaren biktimak direnean sufritzen dituztenen berdinak. Soilik gertatzen diren egoera zehatzak aztertuz prebenitu eta saihesten ahal dira, eta gertatzen diren kasuetan, zigorgabetasuna ez izateko jazartzen ahal dira. Helburua begi bistakoa da: indarkeria matxistarik ez gertatzea, baina haiek etengabe eta ohikotasunez gertatzen direnez, lehendabiziko eskakizuna da emakumeak egoera horietatik atera ahal izatea. Lan hori egin ahal izateko tresnez hornitzea.

Urte askotan zehar, mugimenduaren zeregin garrantzizkoa izan da erasoak etengabe salatzea. Gainera, milaka emakume mobilizatu ditu protesta eta salaketa horiek sostengatzeko. Eta, batez ere, indarkeria sorrarazi eta menderatze patriarkalaren egiturazko elementu gisa betikotzen duten zioak ikertu ditu. Lan eta borroka honen gunean emakumeen, gu guztion bizitzak daude, gure bizitza libreak eta indarkeriarik gabeak. Honek erran nahi du eskakizun horien barruan egiten den guztiak erdi-erdian paratzen dituela emakumeak, beren kontakizunak, bizipenak, beren minak eta, batez ere, beren desirak.

Horregatik, "nik sinesten dizut" kontsigna atera denean, gutako asko ohartzen gara asmatu dela. Autodefentsa feministan enfasia paratzean asmatu den ber. Hor daude emakumeen gorputzak, hitz egiten, erresistitzen, berreraikitzen, deseraikitzen. Eta eguneroko agenda honen bitartez soilik eraikiko da benetan kontakizun bat, kolektibizatuko da, eta hortik aurrera, erran dezagun, hasiko da benetako prozesua.

Talde feministek tresna asko garatu dituzte. Indarkeria eta askatasunik ezaren inguruko esperientziak kontatzea eta zabaltzea izan ziren kolektiboan emandako lehen pausuak. Denek ez dute bozgorailua bilatzen kontatzeko. Asko bat etortzen dira aditutakoarekin eta badakite haien esperientziarekin lotzen. Geroago salaketa etorriko da, salaketa publikoa, ez du salaketa polizial-judiziala erran nahi. Ozenki seinalatzea eraso egiten duena eta bortxatzen duena. Eta horretarako, bai, autodefentsarako benetako ariketak egin behar dira, hor hasiko baita sentitzen sinetsia ez izatearen kalte handia. Ez hori bakarrik, erasotua izan, errudun izan eta biktima izatetik errudun izatera pasatzearen kaltea. Zeren eta biktimak profil predeterminatu eta aurrejuzgatua izaten baitu: emakume ahul, hauskorra da, desorekatua izateko joerarekin, lanpetua, babesgabea... edo, bestela, probokatzailea da, mendekua edo bereizketa ona bilatzen duena, edo hisiaz egiten duena...

Guk, gure borrokan, "Nik sinesten dizut" erraten segitzen dugu eta akusatzen gaituzte errugabetasun-presuntzioaren aurka joateagatik. Ekintzak argitu daitezen eskatzen jarraitzen dugu eta erasoaren aurka kementsu protestatzera ateratzen, eta lintxamenduak egitea leporatzen digute. Erasotzaileak publikoki salatzen ditugu eta erantzuna izaten da erasotuaren bizitza-kontakizunak ematea,



haren sinesgarritasuna kaltetzea xede dutenak. Emakume bati sexu-erasoa egin izatea salatzen dugu eta erraten dute ekintza baimendua zela.

Erasoak, edo zein mailatan, salatzen dituzten emakumeak errudun bihurtzeko kasuak bukaezinak dira. Instituzioek gertaera horien aurrean ematen duten erantzun bakarra da zigor-justiziara joan zaitezela. Orain Justizia ministroa den Auzitegi Nazionaleko epaile ohi batek dioenez, bakarrik egia judiziala existitzen da. Bukatu da horrenbeste hipokresia!

Berriro ekin diezaiozun emakumeen bizitza, indarkeriarik gabeko bizitza erdigunean paratzeko gaiari. Inori ez zaio burutik pasatzen – gutako inori erran nahi dut- askatasun gehiago, bizitza libre handiago eta indarkeria gutxiago izateko poliziarengana jo behar duzula, ondoren auzitegi batera jotzeko. Auzitegiak eta poliziak lotura dute gatazkarekin, indarkeria armatuarekin, dirua balio duten abokatuarekin, egia osoa erran behar izatearekin, zin edo hitz pean, bestela kondenaturik izan zaitezke. Baina, gainera, zigor auzitegi batera jotzen bada, teorikoki prozedura asimetrico batean sartuta izanen zara, zeren “ustezko” erasotzailearen eskubideak defendatzeko eta prozedura bermeduna hari eskaintzeko, biktima-lekuko egoeran paratuko baitzaituzte deklaratzeko behararekin edo, bestela, salaketa faltsua izan dela leporatzen ahalko dizute.

Erasotzailea salatzerantz doan emakume erasotzailearen egoera gurutzatu dezagun eskasia ekonomikoa duenaren egoerarekin, edo paperik gabeko etorkina denarekin edo epaitegira salatutako gisa maiz joaten den etnia gutxitu batenarekin, edo prostituzio klub batean sexu zerbitzuak ematen dituen batenarekin. Benetan tresna baliagarria al da zigor justizia hau, lehen mailan hartzaile gisa poliziak dituen? Ondoren, justizia sarea eta aparatua egonen dira. Eta denok dakigu ez dugula esajeratzen erraten dugunean hor indarkeria instituzionalaren prozesu bat gertatzen dela. Sumarioko sekretua trukatzeko moneta izaten da zenbait komunikabiderek, zeinek horrela konpentsatzen baitituzte estolda munduei egiten dizkien beste fabore batzuk. Prozesua indarrean dagoenean, mugimendu feminista auzitegien aurrean mobilizatzen denean erasotutako emakumeen elkartasunean, “erasotzaileen linteramendurako prest dauden feminista samaldak” deitzen digute. Isiltasuna hedabideen linteramenduei dagokienez.

Horren aurrean, berriro ere guk aztertu behar dugu noiz gelditu isiltasunean eta noiz bilatu konplizitate eta sostenguak. Dena ez da komunikabideetan agertzea gure egiak, biribilak direnak, errateko, desitxuratzen baitituzte. Mugimendu feministaren hedabide-isiltasuna ere indar eta elkartasunez kargatutako arma da.

Eta, berriz, emakumeak erdigunean paratzen ditugu, haien bizitza libre eta indarkeriarik gabekoetan. Horrek erran nahi du gatazka eta kereiletan gaudenean, azalpen handieneko eta liskar larrietako egoeretan gaudenean, menderatze

patriarkalari dagokionez, horrenbeste non gure bizitzak arriskuan dauden, interesa emakumeengan paratzen dugu. Eta ez dago familian, Konstituzioak lehentasunezko subjektutzat hartu zuen abstraktu patriarkala baita. Eta, orobat, ez dago umeengan, alaba eta semeengan, emakumeen loturak askatzea ahalbidetzen ez duen elementu kontraesankor gisa. Seme-alabak ez dira amen, ezta aiten, eranskina, emakumeei xantaia egiteko eta emaitza ekonomiko hobekak lortzeko maiz erabiltzen diren arren.

Horren zaila al da umeak autonomotzat hartzea laguntza eta sostengu ekonomikoetako gaietan, are aita- edo ama-pentsioetan eta eman beharreko baliabideetan eta ez estatus familiarrari lotzea? Gizarte-ongizatearen politikak deitutakoek, arestian aipatu bezala, familia paratzen dute erdigunean: laguntza familiarrak, soldata familiarra, errenta eta zerga familiarrak, areago, familien enpleguaz eta familia langileez hitz egiten da. Begi bistakoa da familiaren kontzeptuak ez dituela irudikatzen eratzen dituzten pertsonak, denak jarrera ezberdinetan, eta zerbaitengatik nabarmentzen badira jarrera asimetriko eta desberdinengatik izaten da. Eta emakumeen kasuan, gainera, gutxiagotzen dituelako.

Konstituzioaren 39. artikulua (oharrean) serio pentsarazi beharko liguke zertan aritu ziren jaun haiek, Konstituzioaren aitak deitutako haiek, emakumeen zein imajinariotan oinarritu ziren emakumeak babesa subjektu eskale gisa (noren edo zeren aurrean eta noren partez) edo ama gisa aipatzeko.

Beste behin ere, eta argitaratu den legediarekin bat, babesa behar duten emakumeak baizik ez dute kontuan hartu emandako legeetan. Eta non daude emakume autonomoak, independenteak, auto-babeserako eta zaintzarako elementu inportanteak dituztenak? Horiek dira subjektu feminista, hori baita gure zeregina. Elakrtu geitezen kale eta plazetan, txoko feministetan. Luzerako dugu pela.

Begoña Zabala  
Emakume Internazionalistak